

2012

PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA


ZUIAKO KOADRILA – OTXANDIOKO UDALA



Otxandioko Udala




Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila




Aurkibidea

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK	3
2.- LANERAKO PLANA	10
KRONOGRAMA	11
LANERAKO PLANA.....	12
3.- PARTE HARTZEKO FOROA.....	13
ERAKETA	14
FUNTZIONAMENDU ARAUAK	15
4.- DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA ETA LAN MERKATUAREN DIAGNOSTIKOA	22
TESTUINGURU EKONOMIKOA ETA LANAREN ARLOKOA	29
ESKUALDEKO TESTUINGURU EKONOMIKOA ETA LANAREN ARLOKOA.....	29
5.- PLAN ESTRATEGIKOAREN DISEINUA	36
JARDUERA ILDOAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	36
6.- LANERAKO MAHAIK	38
PROPOSATUTAKO LAN MAHAIK.....	39
FOROAK ADOSTUTAKO LAN MAHAIK.....	39
LAN MAHAI BAKOITZAK EGINDAKO PROPOSAMENA.....	41
7.- EKINTZA PLANA.....	43
PROGRAMAK	44
LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK	74
LEHENTASUNEN KOADROA	75





Otxandioko Udala




Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila

PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA ZUIAKO KOADRILA- OTXANDIOKO UDALA

SARRERA ETA AURREKARIAK





Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, hazkunde ekonomikoa ez da iraunkorra izango ez baldin eta ez bada **kalitatezko enplegua** sortzen. Erakundeei dagokien lidergo sozialaren barruan, enpleguaren estrategiak berebiziko garrantzia du, talde zaurgarrien egiturazko langabezia sendotzea saihestu






behar delako eta hazkunde iraunkorrerako diru-sarreraren bilakaerak orekatuagoa izan behar duelako.

Funtsezkoa da enplegu politika egoki bat pertsonen lehiakortasunerako, gaitasunerako eta baliagarritasunerako estrategia baten barruan, merkatu irekien ondoriozko premia produktiboak eta malgutasunari dagozkionak kontuan hartuta betiere. Beraz, erakundeen, gizarte eta ekonomia eragileen lankidetzak izan behar du nagusi, ekintza politiko, sozial eta enpresarialaren helburu komunen inguruan; alegia, ez da mugatu behar gobernuaren ekintzak eskura dituen baliabide publikoetara.

Zuiako Koadrilak eta Otxandioko udalak beren gain hartu dute sistema produktibo osoaren, enpresen eta langileen premiei eraginkortasunez erantzuteko **funtzioa**, arreta berezia jarritz langabeengan eta lan munduan txertatzeko edo hartara itzultzeko zailtasun gehien dituzten taldeengan.

Erronka horrekin sortu zen Enplegurako Eskualde Plana. Eta bertan biltzen dira enplegarritasunerako politika bateratua aurrera eramateko kontuan hartu beharreko osagai kritikoak. Plan hori, halaber, ez dago gaur egungo krisi ekonomikotik eta horrek enpleguan duen ondorioetatik kanpo, ezta merkatu globalizatuan gertatzen ari diren enpresen deslokalizazioetatik urrun ere; nazioartekotze prozesu horrek egokitzea dakar berarekin, baina, aldi berean, aukerak sortzen ditu eta lehia sustatzen du.

Enplegu Planaren barruan, **Ekintza Plan** bat osatu da, ildo hauei jarraituz:

-  EKIN: enpresa berriak sustatzea.
-  LEHIATU: enpresa txikiei eta autonomoei bultzada ematea.
-  ENPLEGUA SORTU: kontratazioa sustatzea.
-  DINAMIZATU: azpiegiturak eskura jartzea.
-  ERAKARRI: turismoaren industria sustatzea.


Beste erakunde batzuekin elkarlanean egiteko ekimenak ere hartu dira kontuan, eta eragile sozial, ekonomiko eta erakunde guztien enplegurako konpromisoa du oinarri.

Enplegu Plan bat **tresna** bat da, herritarren enplegarritasuna hobetzeko, enplegua sortzeko eta eskualdeko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko tresna bat, eskualdeko lan merkatuaren errealitatera egokituz betiere.

Erakundeek eta tokiko entitateek, eragile sozialek, enpresek eta eskualde baten edo hura osatzen duen udaletako baten edo bat baino gehiagoren garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzen dioten beste erakunde batzuek, ahalik eta kontsentsu maila handienaz osatu, partekatu eta landutako proiektuak dira **Eskualdeko Enplegu Planak**. Plan horren eraginez, enpleguaren sustapena eta tokiko garapena bilatuko duten ekimen zehatzak eta programa bereziak sortuko dira.

ZUIAKO KOADRILAK ETA OTXANDIOKO UDALAK, *Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatzeko laguntzak iragartzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2012ko maiatzaren 9ko AGINDUaren bitartez*, hainbat ekimen eta/edo programa bultzatu nahi ditu, azken helburua lortzeko asmoz, alegia, **eskualdeko ekonomia aktibatze**ko asmoz.

Enplegu Plan hau Euskal Enplegu Estrategiaren eta horri dagokion 2012 Plan Eragilearen esparruan sartzen da; EAEko eskualdeen errealitatea ezagutzea du helburu nagusia, horietako bakoitzean enplegua sustatzeko zer neurri har litezkeen hautemateko.



Plan hori aurrera eramateko, ZUIAKO KOADRILAK ETA OTXANDIOKO UDALAK arrazoi historikoetan, azpiegituretan eta pertsonen fluxuari dagozkienetan oinarri hartuta bat egin dute, izan ere, antzeko ezaugarriak dituztenez, sinergia handiak dituzte beren artean taldean lan egiteko.

Lan honek aukera ematen du sektore guztiei onura ekarriko dioten ekimenak eta proiektuak aurrera eramateko: *erakundeak, herritarrak eta enpresa egitura*.

Udal horiek *Enplegua eta Gizarte Gaiak Sailaren* maiatzaren 9ko “*Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatzeko laguntzak*” agindua gauzatzeko elkartu dira, era horretara, eskualdea osatzen duten herri guztiei arestian udalaren eskumenekoak ziren hainbat zerbitzu eman ahal izango diote, horien artean dauden lotura sendoak, historikoak zein behar komunei dagozkienak kontuan hartuta. Talde lanak lurraldearen garapena bilatzen du, eta, ondorioz, herritarren bizi kalitatearen hobekuntza.


Azterketa honetan parte hartu eta ekarpenak egin dituzte eskualdeko udal arloek, gizarte eragileek, enpresek, prestakuntza erakundeek... era horretara, arazo eta premia garrantzitsuenak identifikatu ahal izan dira eta errealitate horren ezagutza oinarri hartuta jardun.

Zuiako Koadrilako udalak Gorbeiaeren adarren-Aramaioko Haranen (Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia) eta Arabako Lautadaren (Arrazua-Ubarrundiako udalaren bitartez hurbiltzen da hartara) arteko eremu naturalean daude.



Lurralde horrek baliabide natural izugarriak ditu, bi Parke Naturala, Gorbeiakoa eta Urkiolakoa, eta garrantzizko ondare historiko eta kulturala. 69 hirigune ditu, eta 493,9 Km²-ko hedadura. Bestalde, 9.500 biztanle baino gehiago ditu.


Zuiako Koadrilaren mugak honakoak dira: iparraldean, Bizkaiko eta Gipuzkoako herrialdeak; hegoaldean, Gasteizko udalerrria eta Añanako Koadrila; ekialdean, Gipuzkoa eta Arabako Lautada, eta mendebaldean, Aiarako Koadrila.



Otxandio Bizkaiaren mediterranean isurialdean dago, hegoaldean Arabarekin muga du (Zuiako Koadrila), Gorbeia mendiak, Anboto dagoelarik haren oinetan, eta Urkiolako parajea (parke natural horretako parte da) lotzen dituzten lursail garaietan.

Otxandio Bizkaiko Lurralde Historikoko ingurune hegoaldekoenean dago, eta horrek, historia, kultura eta tradizioa direla eta, berezko izaera ematen diote, gainerakoengandik berezia, baina eskualdeko auzokoen berdina.

Otxandioko udalerrriak 12,43 km²-ko hedadura du, eta 1.300 biztanle inguru bizi dira bertan.




Zuiako Koadrilaren eta Otxandioko Udalaren ESKUALDEKO ENPLEGU PLANAREN asmoa izan da udal horiek modu berezian eratzten dituzten funtsezko osagaiak aztertzea, eta orobat horiek azken urteotan izan duten dinamika aztertzea; analisi hori egin ondoren, EKINTZA PLAN bat egin ahal izango da, udal horien eskualde garapenerako estrategiaren barruko proiektu bereziekin.

Lan arazoak ezin konpon litezke bakarrik udalaren ikuspegitik jardunez gero; ezinbestekoa da horiei eskualdearen ikuspegitik heltzea. Eskualdeko enplegu arazoak konpontzeko asmoa duen estrategia batek ezin du tradizioz enplegu politikatzat hartu izan direnetan soilik arreta jarri (alegia, lan merkatuari baino begiratzen ez dion politika); aitzitik, tokiko garapen politika bati dagokion ikuspegi zabalago batean kokatu behar da, eta beste gai batzuez ere kezkatu behar du, hala nola, produkzioaz, azpiegiturez, hezkuntzaz, ingurumenaz, gizarteaz, etab.

Eragile ekonomiko eta sozialek garrantzizko lekua dute lurraldearen barruan, halako eran non, hura osatzeaz gainera, lurraldearen ezaugarrien arduradun nagusiak diren.


Lurralde unitate horiek elkarri lotutako lurralde sistemak dira, eta sare batean elkartzen dira. Lurraldea errealitate sistemiko bat da, hainbat funtzio betetzen dituzten eta elkarri lotuta dauden *hainbat azpisistemez* osatua, eta bere egitura helburu jakin batzuk lortzera bideratua da (besteak beste, lurraldearen garapen ekonomikoa).




Hurrengo orrialdeetan, Zuiako Koadrilaren eta Otxandioko udalaren Eskualdeko Enplegu Planaren emaitzak azalduko dira. Lortutako azken produktua xehetasunez azalduko da, FONDO FORMACIÓN EUSKADI S.L.L.-k sustatutako laguntza teknikoak adierazitako faseei jarraituz.

Honako alderdi hauetan oinarritzen da zerbitzu hori:

1. Eskualdearen Azterketa eta Diagnostiko sozioekonomikoa eta lan merkatuari dagokiona.
2. Plan Estrategikoaren Diseinua: Jardunbideak eta Helburu Estrategikoak.
3. EKINTZA PLAN baten diseinua eta osaera, enplegua sustatzeko proiektu bereziekin.





PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA ZUIAKO KOADRILA- OTXANDIOKO UDALA


LANERAKO PLANA

Kronograma



LAN FASEAK	2012ko IRAILA		2012ko URRIA					NOVIEMBRE 2012ko AZAROA	
	17-21	24-28	1 - 5	8 - 11	15-19	22-26	29-31	5-9	12-16
DIAGNOSTIKOA									
Lanerako Planaren aurkezpena eta antolamendua									
Datu kuantitatiboan bilketa									
Elkarrizketak parte hartzen duten udal guztiekin									
Bulego lana									
PLANGINTZA ESTRATEGIKOA									
Parte hartzeko Foroa									
PLANGINTZA OPERATIBA									
Lan mahaiak									
Bulego lanaren zirriborua									
Parte hartzeko Foroa									
ENPLEGU PLANAREN ERREDAKZIOA									
Bulego lana									
Enplegu Planaren aurkezpena									
Lanbideri ematea									
JARRAIPEN ETA EBALUAZIO FASEA									
(*)									


(*) Jarraipenari eta ebaluazioari dagokion fasea etenik gabea da eta zeharkakoa Enplegu Planaren diseinua egiten den bitartean. Bestalde, LANBIDERi Enplegu Planaren aurkezpena egin ondoren, Fondo Formación Euskadi S.L.L.-k haren jarraipena egingo du, planaren norainokoaren berri izateko.



Lanerako plana




EKINTZAK	ZEREGINAK	DATAK
FASEA: DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA ETA LAN MERKATUARENA		
KOORDINAZIO TEKNIKORAKO MAHAIA	• Eplegu Plana parte hartzen duten udalei aurkeztea.	Irailak 19
	• Foroan parte hartuko dutenak zehaztea.	Irailak 19
	• Kronograma eta Lan Plana egitea.	Irailak 20 eta 21
DIAGNOSTIKOA	• Datu kuantitatiboak biltzea.	Irailaren 24tik
	• Datu kualitatiboak biltzea (elkarrizketak).	urriaren 5era
	• Bulego lana: bildutako datuen azterketa eta ondorioak osatzea.	Urriaren 8tik 11ra
FASEA: PLANGINTZA ESTRATEGIKOA		
PARTE HARTZEKO FOROA	<ul style="list-style-type: none"> • Foroa osatzea. • Diagnostikoaren ondorioak aurkeztea. • Estrategia eta helburu orokorrak finkatzea. • Lan Mahaietarako proposamenak. 	Urriak 15
FASEA: PLANGINTZA OPERATIBOA		
LAN MAHAIK	<ul style="list-style-type: none"> • 2 edo 3 lan mahai antolatzea. • Ekintza Plana osatuko duten programen proposamenak. 	Urriaren 15etik 19ra
EKINTZA PLANAREN DISEINUA	• Bulego lana.	Urriaren 22tik 26ra
PARTE HARTZEKO FOROA	• Ekintza plana aurkeztea aztertzeko eta eztabaidatzeko.	Urriaren 29tik 31ra
FASEA: ENPLEGU PLANAREN ERREDAKZIOA		
ENPLEGU PLANAREN ERREDAKZIOA	• Bulego lana.	Azaroak 9 arte
	• Enplegu lana aurkeztea.	
	• Lanbideri ematea.	Azaroak 16 arte
FASEA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA		





Otxandioko Udala



Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila

PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA ZUIAKO KOADRILA- OTXANDIOKO UDALA

PARTE HARTZEKO FOROA


Parte hartzeko Foroaren eraketa

BAZKIDEA	ORDEZKARIA
ARAMAIOKO UDALA	Lierni Altuna (Zinegotzia)
ARRAZUA UBARRUNDIAKO UDALA	Rufino Sáez de Ibarra (Alkatea) María Jesús (Zinegotzia) Ekaiz (Zinegotzia)
LEGUTIOKO UDALA	Jon Iñaki Leza de la Llera (Alkatea)
URKABUSTAIZKO UDALA	Josean López Goitia (Alkatea) Rosa (Zinegotzia)
ZIGOITIAKO UDALA	Manolo Vigo (Zinegotzia)
ZUIAKO UDALA	Rubén Rico (Zinegotzia)
OTXANDIOKO UDALA	Santi Uribe Laka (Alkatea)
LANBIDE	María Bollado (Toki Garapeneko Tekn. - Lanbide) Obdon Bilbao (Toki Garapeneko Zuzendaria – Lanbide)
ZUIAKO KOADRILA	Oihana Martínez Errasti (Sustapen Ekonomikoko Tekn.)
SEA	
AMPEA	Julia Liberal Liberal (Lehendakaria)
UAGA	Nagore (Abornikanoko Antzina Gaztak)
SINDIKATUAK	
ZERBITZUEN SEKTOREA	Ana González (Casa del Patrón)
IES MURGIA	José Manuel Elicege Iglesias (Zuzendaria)



⇒ **PARTE HARTZEKO FOROAREN LEHENDAKARIA:** Lierni Altuna

⇒ **PARTE HARTZEKO FOROAREN IDAZKARIA:** Jon Ezkurdia



PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA ZUIAKO KOADRILA- OTXANDIOKO UDALA

*PARTE HARTZEKO FOROAREN
FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK*

1. FOROAREN IZAERA ETA OSAERA

1.1. IZAERA

Eskualdeko Parte hartzeko Foroaren bidez, behar bezala bermatu nahi da instituzioek, eta gizarte eta ekonomiako eragile publikoek eta pribatuek parte hartuko dutela Zuiako Koadrilako eta Otxandioko Udalerriko Eskualdeko Enplegu Plana prestatzeko lanetan, eta planaren ondorioz egin beharreko ekintzetan.

Eskualdeko Enplegu Plana eraikitzeko, partekatzeko eta prestatzeko, ahalik eta adostasunik handiena lortu nahi izan da instituzioen, tokiko erakundeen, enpresen eta eskualdearen gizarte eta ekonomiako garapena lortzeko laguntza ematen duten bestelako erakundeen artean. Planaren ondorioz, ekintza zehatzak eta programa bereziak abiaraziko dira, enplegua tokian bertan bultzatzeko eta garatzeko, lan-merkatuan izan diren aldatetek eragindako desorekak gaindituz.

1.2. OSAERA

1. Koadrilako burua izango da foroaren buru, edo berak eskuordetutako pertsona bat bestela. Izan ere, Zuiako Koadrila da LANBIDE aurrean aritzen den erakundea, eskualdeko udalerrien elkartearen ordezkartzan. Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia eta Otxandioko udalek eratzen dute elkarte hori.

2. Honako hauek izango dira foroko kideak:

a) Udalen aldetik:

- Udal-instituzio bakoitzeko alkateak edo ordezkariak.

b) Enpresen aldetik:

- Enpresetako langileak, enpresek berariaz izendatutakoak foroan haien ordezkartzan aritu daitezen.

c) Gizarteko eragileen eta beste instituzio batzuen aldetik (sindikatuak, patronala, Merkataritza Ganbera, dendarien elkarteak, gizarte-izaerako erakundeak, etab.):


- Erakunde horietako ordezkariak, erakundeek izendatutakoak foroan haien ordezkartzan aritu daitezen.

d) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren aldetik:

- Lanbideko bulegoko langileak, bulegoko zuzendariak izendatutakoak.

e) Zuiako Koadrilaren aldetik:


- Eskualdeko agentziako zerbitzuko langileak, agentziak berak izendatutakoak.



3. Kargua hutsik geratzen bada, edo kargua bete behar duena bertaratu ez bada edo gaixorik badago, beste pertsona batzuek ordezkatuko dute, ahal dela ordezkaturako pertsonari zegokion talde bereko ordezkari batek. Ordezkoaren izendapena behar adinako aurrerapenaz jakinarazi beharko da, dagozkion deialdietan kontuan hartu ahal izateko.

4. Foroak Idazkaritza Teknikoa izango du, hain zuzen, Zuiako Koadrilaren zerbitzuko langileak arduratuko dira horretaz. Erakunde horrek izendatuko du idazkaria.

5. Foroko kideen kopuruak ez du 15 kideetik gora joko.



2. EGINKIZUNAK

2.1. FOROAREN EGINKIZUNAK

Eskualdeko Enplegu Planari dagokion edozein auzi aztertu ahal izango da foroan, parte-hartzaileek horrela proposatuta, betiere, foroan parte hartzen duten guztien interesekoa bada. Bestek beste, gai hauek eztabaidatu eta ezagutzera eman ahal izango dira foroan:

- Eskualdeko enplegu-eskatzzaileen enplegarritasuna hobetzea.
- Lurraldea dinamizatzea, bultzatzeko eta eskualdeko garapena sustatzeko.
- Ingurunearen biziberritze sozioekonomikoa.
- Instituzioen arteko elkarlana eta lankidetzeta, lurraldeko herritarren bizitzaren kalitatea hobetzeko.
- Berrikuntza sustatzea, hobetzea eta ugaltzea, eta teknologia berriak eta enplegu-hobiak garatzea.

Erabakiak Foroan aztertutako gaiei buruzko txosten edo gomendio gisa landuko dira, eta, beraz, ez dute ondorio juridiko loteslerik izango. Foroak bideak finkatuko ditu, bertan hartzen diren akordioak jendaurrean jakinarazteko.

2.2. BURUAREN ZEREGINAK


Buruari dagokio:

- a) Foroaren jarduera zuzentzea, bultzatzea eta koordinatzea, eta bileretarako dei egitea eta bertako buru izatea.
- b) Bileretako aztergaien zerrenda finkatzea, kideek egindako proposamenak eta eskaerak aintzat hartuta, Funtzionamenduko Arau hauetan ezarritakoari jarraiki.
- c) Idazkaritza Teknikoari agintzea foroan aztertu diren edo aztertuko diren gaiei buruzko aktak edo txostenak egiteko.
- d) Funtzionamenduko Arau hauetan esleitzen zaizkion gainerako zeregin guztiak.

2.3. IDAZKARITZA TEKNIKOAREN ZEREGINAK

Idazkaritza Teknikoari dagokio:


- a) Foroko eta lan-taldeen bileretako aktak egitea.
- b) Foroak hartutako akordioak ezagutzera ematea eta iragartzea.
- c) Funtzionamenduko Arau hauetan esleitzen zaizkion gainerako zeregin guztiak.



2.4. FOROKO KIDEEN ZEREGINAK

Foroko kideei dagokie:

- a) Parte hartzen duten foroaren eta lan-taldeen osoko bilkuretan parte hartzea, eta buruari proposatzea aztergaien zerrendan gaiak sar ditzan, behar adinako aurrerapenez.
- b) Proposamenak aurkeztea Foroaren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, edo lan-taldeetan edo idazkaritza teknikoan aztertzeko, eta horien guztien jardueraren plangintza egitea.



3. PARTE HARTZEKO FOROAREN FUNTZIONAMENDUA

Foroak Osoko Bilkuran edo lan-talde baten edo batzuen bidez jardungo du.

3.1. OSOKO BILKURA

1. Kide guztiek eratuko dute Osoko Bilkura, buruaren gidaritzapean eta idazkari teknikoaren laguntzaz. Salbuespen gisa, foroko kideren batek eskatzen badu eta buruak aurrez deialdia egiten badu, beste pertsona batzuk joan ahal izango dira forora, aztertu beharreko gaiak aintzat hartuta pertsona horiek foroan egotea egokia dela jotzen bada.

2. Burua arduratuko da Osoko Bilkuretarako dei egiteaz, Idazkaritza Teknikoaren bidez, gutxienez, 48 ordu lehenago, kasu hauetan:

- a) Buruak bere ekimenez hala erabakita.
- b) Gutxienez parte hartzen duten bost kideren ordezkariak eskatuta; nolahi ere, gai horiek aztergaienez zerrendan sartzeko eskatu beharko dute.

3. Deialdian, bilerako aztergaienez zerrenda jasoko da, eta horri landu beharreko gaiei buruzko agiri bereziak erantsiko zaizkio. Buruak aztergaienez zerrenda zabaldu ahal izango du, egokitzen jotzen bada. Osoko Bilkura behar bezala eratzeko, gutxienez, ordezkari guztien erdiak egon beharko du, eta horien artean burua eta idazkari teknikoa egongo dira, edota haiek eskuordetutako lagunak. Ohiko bilkuretan, aztergaienez zerrenda sartuta ez dagoen edozein gairi buruz eztabaidatu ahal izango da, betiere, buruak hala proposaturik, bertan dauden kideek hori egitea erabakitzen badute bileraren hasieran.


4. Akordioak hartzeko, adostasuna lortu beharko da Osoko Bilkuretara joaten diren kideen artean.

5. Bilera bakoitzean, idazkari teknikoak akta bat idatziko du, eta foroko kide guztiei bidaliko die gero, hurrengo bilerako deiarekin batera, onespina emateko.

6. Aktan berariaz zehaztuko dira bileran egondako pertsonak nor diren, bilerako aztergaienez zerrenda, zein tokitan eta egunean egin den, eztabaidetako gai nagusiak eta, orobat, lortutako akordioezko edukia.

7. Akta onetsi ondoren, idazkari teknikoak sinatuko du, buruaren oniritzia izanda.

8. Foroko bilerak buruak erabakitzen duen tokian egingo dira, betiere, foroko gainerako kideak bat badatoz horrekin.





3.2. LAN-TALDEAK

1. Foroaren Osoko Bilkurak lan-taldeak sortzea eta ezabatzea erabaki ahal izango du, eta talde horien egitekoak, eskumenak eta funtzionamenduko arauak zehaztuko ditu.
2. Foroko gainerako kideek izendatuko dituzte lan-taldeetako ordezkariak. Salbuespen gisa, lan-taldeetako kideren batek eskatzen badu eta foroko idazkari teknikoak aurrez deialdia egiten badu, beste pertsona batzuk joan ahal izango dira taldeen bileretara, aztertu beharreko gaiak aintzat hartuta pertsona horiek bileran egotea egokia dela jotzen bada.
3. Lan-taldeak sortzeko erabakian, eman zaien egitekoa zein epetan burutu behar duten zehaztuko da.
4. Foroko idazkari teknikoak –edo berak eskuordetutako pertsona– lan-taldeetara joango da, eta idazkari-lanak egingo ditu, Funtzionamenduko Arau hauetan finkatuta dagoenari jarraiki.
5. Taldeen lanaren emaitza foroko buruari aurkeztuko zaio, hurrengo Osoko Bilkurako aztergaien zerrendan sardezan.

4. FOROAREN FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK ALDATZEA

Funtzionamenduko Arau hauek aldatzeko proposamenak idazkari teknikoak aurkeztu beharko ditu, Osoko Bilkurara igortzeko. Arauok aldatzeko proposamena aurkeztu eta idazkari teknikoak txostena egin ondoren, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta, hala behar denean, onetsiko du, denak elkar hartuta.





PLAN DE EMPLEO COMARCAL ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA ZUIAKO KOADRILA- OTXANDIOKO UDALA

DIAGNOSTIKO
SOZIOEKONOMIKOA ETA LAN
MERKATUAREN DIAGNOSTIKOA

HELBURU NAGUSIA

Eskualdearen errealitate sozioekonomikoaren azterketa eta diagnostikoa egitea, hazten edo gainbehera dauden jarduera sektoreak eta adarrak eta horiek enplegua sortzeko duten gaitasuna hautemateko, eta langabeziaren oinarritzko alderdiak aztertzea, EKINTZA PLAN bat egiteko. Plan horrek bertako garapena eta enplegarritasuna hobetu nahi ditu.

HELBURU ZEHATZAK

- Eskualdearen erretratu sozioekonomikoaren azterketa egitea.
- Eskualdearen hezkuntza eta gizarte egituraren azterketa egitea.
- Eskualdeko erakundeen arteko sinergiak bultzatzea.
- Enpleguaren eremuan etorkizunean egin litezkeen ekimenak identifikatzea etaosatzea eta enplegu hobi berriak bultzatzea.



JARDUERAK

- Bilerak eta elkarrizketa pertsonalizatuak eskualdeko eragile guztiekin: erakundeak, tokiko entitateak, enpresa elkarteak, sindikatuak, gizarte eragileak, ikastetxeak eta enpresak, eskualdeko enplegu eskaerak aztertzeko.
- Lanerako eta parte hartzeko foroak sortu inguruko funtsezko eragileekin, eta horien arteko sinergiak bultzatu.
- Merkatalgune berriak, azaleratzen ari diren sektoreak eta gainbeheran daudenak hauteman, eskualdean interes orokorreko zer jarduera egin zehazteko.
- Jarduera horietarako zer lanbide behar diren zehaztu.
- Enplegua hartuko dutenen profilak identifikatu, hautemandako enpleguetara egokitzeko.
- Azterketa horren ondoriozko prestakuntza premiak identifikatu.



EGITURA ETA METODOLOGIA

1. FASEA: AZTERKETA TALDE BAT ERATZEA

2. FASEA: DIAGNOSTIKOA EGITEA

1. Dokumentuen azterketa.
2. Elkarrizketa pertsonalak lehen mailako informazioa iturriekin:

ELKARRIZKETAREN EGUNA	UDALERRIA	ELKARRIZKETATUA(K)
Irailaren 27a	ZIGOITIA	Manuel Vigo García (zinegotzia) Mikel Las Heras Martínez de Lopera (alkatea) Amala Sáez de Cámara Aguirre (zinegotzila)
Irailaren 28a	OTXANDIO	Santi Uribe Laka (alkatea) Iñaki Urigollia Bengoa (alkateordea) Pello Otxandiano Kanpo (alkateordea) Kepa G. de Audikana Bengoetxea (zinegotzila) Isidoro Garmendia Padilla (zinegotzila)
	LEGUTIO	Jon Iñaki Leza de Llera (alkatea) Unai Beltia Ramos (zinegotzila) Aitziber ??? (administrataria)
Urriaren 1a	ZUIA	Rubén Rico Gutiérrez (zinegotzila)
	ZUIAKO KOADRILA	Oihana Martínez (Enplegu eta Sustapen Ekonomikorako teknikaria)
Urriaren 2a	URKABUSTAIZ	José Antonio López Goitia (alkatea)
Urriaren 3a	ARAMAIO	Ramón Ajuria Uranga (alkatea) Liermi Altuna (zinegotzila eta Zulako Koadrilako burua)
Urriaren 4a	ARRATZU-UBARRUNDIA	María Jesús Bilbao Martínez (zinegotzila) María Aranzazu Arranz Ruiz de Azua (zinegotzila eta Zurbanoko Administrazio Batzordeko burua)
Urriaren 10a	ZIGOITIA	Gizarte Ongizateko Batzardea

3. FASEA: EMAITZEN AZTERKETA





TESTUINGURU EKONOMIKOA ETA LANAREN ARLOKOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera sozioekonomikoa 2008. urteaz geroztik ekonomia aurreratuenak, munduko finantza sistemaren desorekaren ondorioz, jasaten ari diren krisi sakonak baldintzatzen du; gainera, krisi horrek gora egingo duela dirudi, Europar Batasuneko zenbait estatutako zor subiranoaren egoera kaskarra dela eta. Berreskuratze prozesua arriskuan dago berriro ere, eta euskal ekonomiak ahultasun zeinuak agertu ditu.

Euskal Herriak badu, ordea, nabarmentzen den datu bat: bertako industria pisu erlatibo handiena duen Autonomia Erkidegoa da, Balio Erantsi Gordinari eta enpleguari dagokionez, eta bereziki metalurgian, garraiorako materialean eta material elektrikoan, eta hori dela eta oso sentibera da krisiaren unerik larrienetan, baina, horregatik beragatik, behin berreskuratze bideari ekinda, munduko merkatuetan duen maila altua baliatu ahal izango du.

Euskal ekonomiaren zabalkunde maila ere Espainiako gainerako eskualde gehienak baino handiagoa da. Esperientziak erakutsi du nazioartekotze maila handieneko enpresak direla ondoen kudeatzen dutenak krisi egoera, eta, orobat, esportatzen duen industriak kanpoko merkatuen berreskuratze faktoreez baliatzeko gaitasun handiagoa duela.

Azken urteotan, Euskal Herrian ahalegin handia egin da I+G+b eremuan. Euskal Autonomia Erkidegoko azpiegitura fisikoak (Parke Teknologikoak, Industrialdeak, Enpresen Garapenerako Zentroak, etab.), laguntza teknikoari dagozkionak eta enpresa lehiakortasuna babesteko egiturak (klusterrak, Berrikuntza, ekintzailtza) oso emaitza onak ematen dituzte enplegu iraunkorraren eta kalitatezkoaren sorreran, eta aberastasuna sortzeko gaitasun handia dutela eta krisi egoerari erresistentzia handia diotela erakutsi dute.



Aipatzekoa da bertako biztanleria aktiboaren prestakuntza maila handiagoa, eta horri esker, hobeto egokitzen dira I+G+b eremuari loturiko lanbideetara, eta, ondorioz, baldintza hobeetan lehia gaitzke. Hori horrela dela ikusten da, batetik, unibertsitateko ikasleek duten garrantziagatik, eta, bestetik, Euskadiko LH indartsuagatik, enpresaren munduari estuki lotua baitago.

Euskal Herriko jarduera tasa orokorra Estatukoa baino baxuagoa da, baina 16 eta 64 urte bitarteko datuak hartzen baditugu, pixka bat handiagoa da. EAEk zaharkitua du adin egitura, eta horregatik, bikoiztu egin behar ditu biztanleria aktiboaren bolumena handitzeko eta biztanleriaren zahartzearen ondorioak gutxitzeko ahaleginak.

Zorionez, Euskal Autonomia Erkidegoko lan merkatua oso osasuntsu zegoen krisiaren hasieran. Enpleguaren suntsiketa oso larria izan bada ere, bertako enplegu tasa, oraindik ere, Europar Batasuneko baino handiagoa da, Frantziakoaren antzekoa. Espainiaren barruan, Nafarroarekin eta Balear uharteekin batera, enplegu tasa handiagatik nabarmentzen da. Gizonezkoen artean suntsitu dira enplegu gehien, baina emakumezkoen enplegu tasak gora egin du krisi garaian.

Lotura zuzena dago lanean daudenen gaztetasunaren eta enplegua galtzeko arriskuaren artean. Termino erlatiboetan, gazteenak dira enpleguaren suntsipena gehien jasaten ari direnak; enplegu tasa oso baxuetatik abiatzen ziren. 25 eta 44 urte bitartean garrantzizko enplegu galerak daude, nahiz eta ez den hain modu nabarmenean. 45 urtetik gora, handitu egin da enplegu maila, gero eta emakume gehiago iristen baitira adin horretara lanean ari direla.

Krisiaren ondorioz, enplegua suntsitzeaz gainera, murriztu egin da enpleguaren kalitatea, lan eskubideak galdu direlako eta prestakuntza maila handieneko lanak izan direlako eragin gehien izan dutenak. Aldi baterako lanen ehunekoak ere gora egin du.

Langabezia tasa Euskal Autonomia Erkidegoan % 15,48koa da, Estatuko bigarren txikiena, Nafarroaren ondotik. Emakumeen langabezia tasa, berriz, gizonezkoena baino pixka bat handiagoa da.




Euskal Autonomia Erkidegoaren langabezia tasa handia da Europar Batasuneko estatuetaoekin alderatuz gero. 27en EBko batez bestekoa baino 2,5 puntu handiagoa da, Alemaniakoa baino 6,3 puntu handiagoa, Erresuma Batukoa baino 4,2 handiagoa, Italiakoa baino 3,9 handiagoa eta Frantziakoa baino 2,3 puntu handiagoa. Portugalgoaren antzekoa da, Greziakoa baino 5,4 puntu txikiagoa eta Espainiakoa baino 10,4 puntu txikiagoa. (Iturriak; Eurostat eta INE).

EAEen barruan sakabanaketa geografiko handia dago langabeziaren eraginari dagokionez. Bilboaldeko eskualdeak dira langabezia maila handieneko eremuak. Deba Garaia eta lehen sektorean oinarritutako eta biztanle gutxiko eskualdeak dira langabezia tasa txikienekoak.

ONDORIOAK

Laburbilduz, analista gehienak bat datoz onartzen dutenean hainbat osagai bereizgarri daudela azaltzen dutenak zergatik den Euskal Herriko lan merkatuaren jokabidea Espainiakoa batez bestekoaren bestelakoa, eta bereziki, krisi ekonomikoaren testuinguruan. Osagai horiek aukera ematen dute egiturazko alderdien, politika ekonomikoaren eta enplegu politika aktiboaren nahasketa bat dagoela atzemateko:

1. Euskal Herriak badu, ordea, nabarmentzen den datu bat: bertako industria pisu erlatibo handiena duen Autonomia Erkidegoa da, Balio Erantsi Gordinari eta enpleguari dagokionez, eta bereziki metalurgian, garraiorako materialean eta material elektrikoan, eta hori dela eta oso sentibera da krisiaren unerik larrienetan, baina, horregatik beragatik, behin berreskuratzeko bideari ekinda, munduko merkatuetan duen maila altua baliatu ahal izango du.
2. Enpresa egitura kanpora begira dago. Euskal ekonomiaren zabalkuntza maila ere Espainiakoa eskualde gehienak baino handiagoa da. Dagoeneko bost sektorek negozio kopurua handiagoa dute kanpoan barruan baino: aeronautika, automozioa, etxetresnak, makina erreminta. Esperientziak erakutsi du nazioartekotze maila handieneko enpresak direla krisi egoerak ondoen kudeatzen dituztenak, eta esportatzen duen industriak kanpoko merkatuen berreskuratze faktoreez baliatzeko gaitasun handiagoa du.
3. Gastu handiagoa I+G+b alorrean. Adostasuna dago berrikuntza lehiakortasunaren oinarritzat hartzeko unean. Adu guztien iritziz, etorkizuneko enpleguaren bermea da. Euskal Herrian azken urteotan ahalegin handia egin da bide horretan.
4. Azpiegitura fisikoek (Parke Teknologikoak, Industrialdeak, Enpresen Garapenerako Zentroak, etab.), laguntza teknikoari dagozkionek eta enpresa lehiakortasuna babesteko egiturek (klusterrak, Berrikuntza, ekintzailtza) oso emaitza onak ematen dituzte enplegu iraunkorren eta kalitatezkoaren sorreran, eta aberastasuna sortzeko gaitasun handia dutela eta krisi egoerari erresistentzia handia diotela erakutsi dute.
5. Biztanleria aktiboaren prestakuntza maila handiagoa, eta horri esker, hobeto egokitzen dira I+G+b eremuari loturiko lanbideetara, eta, ondorioz, baldintza hobeetan lehia gaitetzke. Hori horrela dela ikusten da, batetik, unibertsitateko ikasleek duten garrantziagatik, eta, bestetik, Euskadiko LH indartsuagatik, enpresaren munduari estuki lotua.






ESKUALDEKO TESTUINGURU EKONOMIKOA ETA LANARI DAGOKIONA





Zigoitia


GAIKAKO MULTZOA	ADIERAZLEAK		ONDORIOAK
FISIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • HEDADURA: 102 km² (azalera gehien duen 2. udalerrria). • 17 biztanle-gune. • Gorbeialdea. • Etxabarri Ibiñako industrialdea 		<ul style="list-style-type: none"> • Herri-gune publikoak: mendiguneak. • Hiri-lurzorua eta bizitegi-gunea. • Lurzoru industrial: garatu gabe.
BIZTANLERIA	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkunde demografikoa: azken 10 urteetako handiena • Biztanleria: 1.694 biztanle. • %24-25: 65 urtetik gorakoen taldea • Etorkinak: %3 • Gizarte-laguntza jasotzen dutenak: <ul style="list-style-type: none"> o DBE: 2-3 bizikidetzako unitate. o GLL: 2-3 bizikidetzako unitate. 		<ul style="list-style-type: none"> • Lo-hiria (lan aldetik Gasteiz hiriarri loturik dauden biztanleak). • Aisialdi eta olgeta-arloko eskaera berriak. • %80k udalerritik kanpo lan egiten du. • %95ek udalerritik kanpo ikasten du (16 urtetik gorakoak). • Hirugarren adinekoak: erkidegoko etxebizitzaren beharra, Birgaitzeko eta Laguntza Psikosoziala emateko Zentroari jarraipena ematea, gaueko arretako zerbitzurik gabe.
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkunde demografikoa eta ekonomikoa: biztanleriaren profil sozioekonomikoaren aldaketa. 		<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago udalerriko kide izateko sentimendurik: gizarteko bizitarik ez dago. • Laneko eta familiako bizitza bateratzea: 0-3 urte bitartean bete gabe.
LAN MERKATUA	ESTABLEZIMENDUAK JARDUERA SEKTOREEN ARABERA: <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuak: %84 • Eraikuntza: %11,5 • Industria: %4,5 	JARDUNEAN DAUDENAK JARDUERA SEKTOREEN ARABERA: <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sektorea: %4 • Industria: %19 • Eraikuntza: %9 • Zerbitzuak: %68 	<ul style="list-style-type: none"> • ZERBITZUEN SEKTORCA: jarduera ekonomiko berriak (ostalaritza, aisialdia, ...): jatetxeak, landa-turismoa, landa-etxeak... • Gorbeia merkataritzako gunea: salgune handiek irauten dute (Carrefour, Decathlon); saltoki txikiak atean dituzte edo ozta-ozta egiten dute aurrera. • Turismoaren bultzada. • Abeltzaintzako jarduera: oso urria (baserriaren exodoa).
LANGABEZIA	<ul style="list-style-type: none"> • 2011 ⇒ %4,89 • 2012ko 2. hiruhilekoa ⇒ %6,88 • 2012ko iraila ⇒ 70 langabe (%6,5) 		<ul style="list-style-type: none"> • Langabeziako tasa baxua.



Otxandio




GAIKAKO MULTZOA	ADIERAZLEAK		ONDORIOAK
FISIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • HEDADURA: 12,43 km² (Bizkaiko udalerrria) • Urkiolako eta Gorbeiaiko parke naturalak. 		<ul style="list-style-type: none"> • Zuhaitziak; lehenengo sektorean ez dago jarduerarik, zurgintzaren arloan. • Udala lurzoru industrialia emateko prest dago.
BIZTANLERIA	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkunde demografikoa: familia gazteak. • Biztanleria: 1.269 biztanle. • Biztanleria zahartzeko joera. • Etorkinak: %7,28 (gizonak). • Gizarte-laguntza jasotzen dutenak: <ul style="list-style-type: none"> o DBE: 15-20 bizikidetzako unitate. o GLL: 5-8 bizikidetzako unitate. 		<ul style="list-style-type: none"> • Biztanle gazteak. • Aisialdi eta olgetarako eskaera berriak. • %45,45ek udalerritik kanpo lan egiten du. • %81,54k udalerritik kanpo ikasten du (16 urtetik gorakoak). • Hirugarren adinekoak: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzurik ez dago.
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak herritarren parte-hartzea bultzatzen du (Herri Ola) • Boluntarismoa aisialdiko jardueretan (profesionalizatu gabe) 		<ul style="list-style-type: none"> • Sukaldaritzaren sektorea dinamizatu gabe dago; udalerriko gizarte-bizitza piztuko luke. • Hezkuntzako eskaintza + eskolaz kanpoko kirola + aisialdia: profesionalizatu gabe.
LAN MERKATUA	ESTABLEZIMENDUAK JARDUERA SEKTOREEN ARABERA: <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuak: %71,88 • Eraikuntza: %12,50 • Industria: %15,63 	JARDUNEAN DAUDENAK JARDUERA SEKTOREEN ARABERA: <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sektorea: %1,84 • Industria: %38,36 • Eraikuntza: %3,52 • Zerbitzuak: %56,28 • Lehenengo lana: %6,45 	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoa: ahalmen handia. • Sektore industrialia: gainbehera, krisia dela-eta (enpresak itxita, enplegua erregulatzeko espedienteak eginez, jarduera gutxirekin). • Zerbitzuen sektorea: sukaldaritza eta ostatua: kudeatzeko arazoak, dinamismo gutxi.
LANGABEZIA	<ul style="list-style-type: none"> • 2011 ⇒ %7,21 • 2012ko 2. hiruhilekoa ⇒ %8,75 • 2012ko iraila ⇒ 64 langabe (%9) 		<ul style="list-style-type: none"> • Gazteek zailtasunak dituzte lehen edo bigarren enplegua aurkitzeko, enpleguaren egonkortasunik eza.



Legutio




GAIKAKO MULTZOA	ADIERAZLEAK		ONDORIOAK
FISIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • HEDADURA: 46 km² (eskualdeko udalerririk txikiena). • Urrunagako urtegia. • Industrialdeak: Goian (garrantzizkoa) eta Lladie. 		<ul style="list-style-type: none"> • Urtegiko jarduerak mugatuta.
BIZTANLERIA	<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleria: 1.644 biztanle • Etorkinak: %7,71 (handituz eta geldit). • Gizarte-laguntza jasotzen dutenak: <ul style="list-style-type: none"> o DBE: 20 bizikidetzako unitate. o Etorkinak eta lan egiteko adina dutenak. 		<ul style="list-style-type: none"> • Gazteek oso gutxi parte hartzen dute, ez dute gizarte-bizitzarik udalerrian. • Hirugarren adinekoak: adinekoak eta mendekotasuna dutenek laguntza behar dute. • Etorkinak: gizarteratzeko arazoak / prestakuntzako maila baxua. • %47,06k udalerritik kanpo lan egiten du. • %98,28k udalerritik kanpo ikasten du (16 urtetik gorakoak).
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak kultura-jarduerak bultzatzen ditu, udalerriko bizitza soziala sustatzeko eta indartzeko. 		<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleek ez dute parte hartzen gizarteko bizitzan.
LAN MERKATUA	<p>ESTABLEZIMENDUAK</p> <p>JARDUERA SEKTOREEN ARABERA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuak: %50 • Eraikuntza: %9 • Industria: %41 	<p>JARDUNEAN DAUDENAK</p> <p>JARDUERA SEKTOREEN ARABERA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sektorea: %3 • Industria: %31,31 • Eraikuntza: %5,45 • Zerbitzuak: %60,20 • Lehenengo lana: %6,50 	<ul style="list-style-type: none"> • Sektore industriala: Arabako indartsuena (Goian industrialdea). • Zerbitzuen sektorea: <ul style="list-style-type: none"> o Garatu gabe. o Urtegiaren ondorioz bultzada handia jaso du. o Ostalaritza – Ostalua – Sukaldaritza.
LANGABEZIA	<ul style="list-style-type: none"> • 2011 ⇒ %9,63 • 2012ko 2. hiruhilekoa ⇒ %12,83 • 2012ko iraila ⇒ 134 langabe (%15) 		<ul style="list-style-type: none"> • Lehenengo lanaren bila ari diren gazteak. • Langabeziako tasarik altuena duen udalerria.



Zuia




GAIKAKO MULTZOA	ADIERAZLEAK		ONDORIOAK
FISIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • HEDADURA: 122,46 km². • 11 herri. • Administrazioko burua. • 2 industrialde: Murgia eta Islarra. 		<ul style="list-style-type: none"> • Lurzoru industriala eskuragarri. • Landa-lurzorua eskuragarri. • Merkataritzako saltokiak eskuragarri.
BIZTANLERIA	<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleria: 2.401 biztanle. • Etorkinak: %5,24. • Gizarte-laguntza jasotzen dutenak: <ul style="list-style-type: none"> o DBE: 15 bizikidetzako unitate. o GLL: 20 bizikidetzako unitate. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hirugarren adinekoak: adinekoei eta mendekotasunen bat dutenei laguntza emateko beharra. • Haurrak: Laneko eta familiako bizitza bateratzea. <ul style="list-style-type: none"> o 0-4 urtekoentzako gune itxiak. • %71,06k udalerritik kanpo lan egiten du. • %98,82k udalerritik kanpo ikasten du (16 urtetik gorakoak).
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak egiteko Gasteizera jotzen dute. 		<ul style="list-style-type: none"> • Bizitegi-gunea. • Errepidez ondo komunitatuta dago Gasteizekin, norbera bere autoan joateko.
